

## GAIZKI ERRANKA

## Danbatekoa



SANTI LEONÉ

Udako aisia aprobetxatuz, paper zaharrak berriz irakurtzen ibili dela erran dit lagun batek. Ni ere bai. Egiari zor, hain zaharrak ere ez dira. Aurkitutakoen artean, lagunarenaz gainera, Alberto Barandiaranen artikulua izaten nituen nik gustuko: luzeak, sakonak eta -gehiagotan erran behar da-behar-beharrezkoak.

*Haizegua* liburuari eskaini ziona da nire gogokoenetarik. Gogora ekartzen zuen Barandarianek nola prestatu zuten liburua Pio Caro Barojak eta Eduardo Gil Berak, eta nola aurkeztu zuten XIX. mendeko Martin Indaburu izeneko poeta batena balitz bezala, Zugarramurdiko borda batean kausitua; nola Atxaga izan zen josteta literario hartaz ohartzeko lehena edo lehenetarik, ongi idatzia zegoelako.

Gil Beraz mintzatzeko aitzakia da *Haizegua*, hein handi batean. Geroago, *Baroja o el miedo* biografia idatzi zuen, Itzean bonba bat bezala erori zena. Gertatzen diren gauzak dira. Niri, aitortu behar dut, izugarri gustatu zitzaidan liburua, gaiagatik baino gehiago estiloagatik, ironiaren eta sarkasmoaren egiazko *tour de force*-a baita. Noizbait, Gil Berak bezala idazten jakin nahi nuke.

Barandarianek aipatzen du, Indabururena eta Barojarena egin baino lehen, zenbait liburutan gogoeta egin zuela gure idazleak, euskaraz, baina bere blogean, bere bibliografia biltzen duen atlean atzenuak dituela liburu horiek, bertze bizitza batean idatzia izan zirenak.

Behin baizik ez dut Eduardo Gil Bera ikusi. Duela anitz urte, Iruñeko Baluartean egindako ekitaldi inportante batean. Inportantea behar izan zuen izan, Miguel Sanz orduko lehendakaria mintzatu baitzen. Zenbaitek ez genion txalorik egin. Joxemiel Bidador zenarekin eta bertze lagun batekin joan nintzen. Bidador Gil Bera agurtzera hurbildu zen. "Eduardozealea duk Joxemi" xuxurlatu zidan bertze lagunak belarrira.

Ni ere bai. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



## "NIRE INBESTIDURA ATZERA BOTATZEKO ANTZERKI BATEN AURREAN GAUDE"

**PEDRO SÁNCHEZ, ESPAINIAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA (PSOE):**

"Iglesiasen negoziazioak aldebakarrez apurtu ditu, hortaz hitz egiten ari gara. Antzerki handi baten aurrean gaude, horrela nire inbestidura bigarrenengo atzera botatzea justifikatu ahal izateko".

**CADENA SER (2019/07/15)**

